

Gure enpresako hornitzaileak, hainbat izango dira. Gure inguruan aurki ditzakegun kotxe eta autoak desegiteko tokiak (desguazeak) izango dira nagusi. Hauetatik, motorra egiteko beharrezkoak zaizkigun piezak lortuko ditugu, hala nola, motorra, ihes hodia (tubo eskapea), etab.

Bestalde, karrozeriari dagokionez, pieza berri eta erakargarriak egingo ditugu gure enpresan bertan, beraz, beharrezko materiala bai auto eta motorrak desegiteko lekutik lortuko ditugu, hauei kolorea, diseinua, etab. aldatuz eta egoera onean daudela ziurtatuz.

Gainera, beharrezko beste piezak enpresan bertan egingo ditugu, hala nola, motorraren zati bat guk ekoitziko dugunez, beharrezko materiala inguruko merkatuan lortuko dugu.

Bazkideei dagokionez, hiru bazkide izango gara enpresan. Bakoitzak bere atala zuzenduko du. Hau da, batek finantzazioa emango du, beste batek, hornitzeak eta bezeroen harremanak eta azkenak, fabrikazioaren funtzionamendua zuzenduko du. Horrez, gain hainbat langile egongo dira hauen agindupean.